PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Etxalazko Hobia

Etxalazko Hobia

Eguesibarren dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Eguesibar non dagoen ikus dezakezu.

Frankismoan zehar frankistek
preso asko Iruñeako kartzeletatik ateratzen zituzten
eta Nafarroako leku ezberdinetara eramaten zituzten
bertan hil eta lurperatzeko.

Frankistek preso asko
Eguesibarren dagoen
Etxalaz jaurerrian hil zituzten.

Desobiratze goiztiar batean
Matilde Ruiz Remónen gorpuzkiak aurkitu zituzten.
Caparrosoko hilerrian,

hau da, bere herrian,
lurperatu zuten berriz.

2018. urtean Nafarroako Gobernuaren
Desobiratze Programaren barruan
Etxalazeko ibaitik gertu
3 hobi indibidual aurkitu zituzten
eta beste hobi hirukoitz bat aurkitu zuten.
Osotara 6 gorpuzki aurkitu zituzten.

2019. urtean beste 2 hobi aurkitu zituzten.
Lehenengo hobian
pertsona 1en gorpuzkiak aurkitu zituzten.
Bigarren hobian
3 pertsonen gorpuzkiak aurkitu zituzten.
Pertsona hauek buruan tiro batez hil zituzten.

2021. urteko apirilean
Nafarroako Gobernuko DNA Bankuari esker
Agustín Joaquín Alfaro
eta Tomás Salinas Beorleguiren gorpuzkiak
identifikatu zituzten.

Hemen hobietan aurkitu zituzten gorpuzkien
argazkia ikus dezakezu,

